

TA. 6-E



MINISTERIO
DE TRABAJO, MIGRACIONES
Y SEGURIDAD SOCIAL



GIZARTE SEGURANTZAREN
DIRUZAINZA OROKORRA



ESKABIDEA:
GIZARTE SEGURANTZAREN
SISTEMAN INSKRIBATZEA.

DATUEN BABESA.- Norberaren Datuen Babesari buruzko abenduaren 13ko (E.A.O., 1999ko abenduaren 14koa) 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan aurreikusi diren ondoretarako, inprimaki honetan jartzen dituzun datuak Afiliazio Fitxategi Nagusian sartuko direla jakinarazten dizugu. Fitxategi hori 1994ko uztailaren 27ko aginduaren bidez araupetu zen. Aipatu datuei dagokienez, datuok atzitu, zuzendu eta deuseztatzeko eskubidea erabili ahal izango duzu, 15/1999 Lege Organikoan adierazten denaren arabera.

INPRIMAKIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

OROKORRAK

- Agiri hau makinaz edo letra larriz bete behar da, ahal dela zuzenketarik eta zirriborrorik egin gabe.
- Atzealde grisa duten eremuak Gizarte Segurantzaren Administrazioak betetzekoak dira.
- Inprimaki hau enpresaburua Gizarte Segurantzaren inskribatzeko eta haren lehenengo kotizazio-kontua edo kontu nagusia irekitzeko erabiltzen da.

ZEHATZAK

1. DATOS DE ENCUADRAMIENTO EN EL SISTEMA DE SEGURIDAD SOCIAL

1.1 Gizarte Segurantzaren sektoreko araubidea.- Langileari dagokiona adierazi behar da, ondoko hauetatik aukeratuz: Orokorra, Ikatz Meatzaritza edo Itsasoa. Baldin honako sektore hauetakoren bat badagokio, langileak adierazi egin beharko du: artistak, zezenketa arloko profesionalak, trenbide-langileak eta futbol jokalariek. Itsasoko Araubide Berezian, enpresaburuari aintzatesten zaion kotizazio-kontua dagokion kotizazio-taldea adieraziko da: I (1. taldeko besteren konturako langileak eta 1. taldeko besteren konturako langileei berdinetsitako armadoreak); II A (2-A taldeko besteren konturako langileak eta 2. taldeko besteren konturako langileei berdinetsitako armadoreak); II B (2-B taldeko besteren konturako langileak eta 2-B taldeko besteren konturako langileei berdinetsitako armadoreak); eta III (3. taldeko besteren konturako langileak).

1.2 Sistema Berezia.- Egiten den jarduerari Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko Sistema Berezia Baten barruan dagoenean "etxeko enplegatuen sistema berezia", "nekazaritza", "erretxina", "kontserba begetalak", "frutak eta barazkiak", e.a. dagokiona zehaztuko da. Zalantzarik badago, bete gabe utziko da lauki hau eta egoera hau Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrari jakinaraziko zaio dokumentu honetan.

Inskripzio-data.- Enpresa inskribaturik agertzeko eskatzen den eguna, hila eta urtea adierazi behar dira.

2. IDENTIFIKAZIO-DATUAK

ENPRESAREN DATUAK:

2.1 Deiturak eta izena edo sozietatearen izena.- Inskripzioa egiteko eskatzen duenaren izena eta deiturak edo sozietatearen izena adierazi behar dira.

2.2 Merkataritzako izena edo anagrama.- Baldin enpresak halako izendurarik badu, jarri egin behar da. Hala denean, kotizazio-kontua irekitzeko eskatzen den jarduerari dagokion merkataritzako izena adieraziko da. Nekazaritzako Araubide Berezian, nekazaritzako ustiategiaren izena jarri behar da atal honetan.

2.3 Identifikazio-agiriaren mota.- (Jar ezazu "X" behar den tokian), Nortasun Agiri Nazionala (NAN), Atzerritar Txartela, Pasaportea, Identifikazio Fiskaleko Zenbakia (I.F.K.) eta abar.

2.4 Identifikazio-agiriaren zenbakia.- Identifikazio-agiriaren zenbakia jarri beharko da; Atzerritar Txartela denean, Atzerritarraren Identifikazio-Zenbakia (A.I.Z.) jarriko da.

2.5 Gizarte Segurantzako zenbakia.- Enpresaburuaren Gizarte Segurantzako zenbakia edo afiliazio-zenbakia jarri behar da, baldin eta enpresaburua pertsona fisikoa bada.

3. DATOS DE CONSTITUCIÓN DE LA EMPRESA (sólo para el empresario colectivo)

3.1 Data.- Enpresaburu kolektiboa eratu zen eguna, hila eta urtea adieraziko dira.

3.2 a 3.10 Erregistro-datuak.- Erregistro mota zehaztuko da hauen artetik: Merkataritza, Jabetza, Kooperatibak, Elkarrekin, Alderdi Politikoak, Erakunde Erlijiosoak, Mutualitateak, Gizarte Segurantzarekin lan egiten duen mutua. Besteren bat bada, honen izena zehaztuko da. Erregistroaren zenbakia esleituko zaio probintzian bat baino gehiago badago, baita probintzia eta erregistro-datuak ere. O edo I letrekin zehaztuko da oharpena edo inskripzioa den arabera.

4. EGOITZA PRIBATUA, SOZIETATEARENA EDO ENPRESA KOLEKTIBOARENA

4.1 Herri-bidearen mota.- Bideari dagokion izena adieraziko da (berbarako, kalea, enparantza, kaminoa, igarobidea eta abar).

Herri-bidearen izena.- Osorik jarri beharko da, laburdurarik gabe, eta, erdaren kasuan, adierazgarriak ez diren artikulua eta preposizioak kenduko dira.

Udalerrria / Udalerriaz beheko lurralde-eremuko erakundea, Probintzia.- Lehenengo laukitxoan Udalerrriaren izena jarriko da, eta udalerriaz beheko lurralde-eremua denean, nolakoa den adierazi behar da, hau da, kontzejua, alkate-auzoa, herrixka, auzunea, parrokia, baserria, elizatea eta abar. Tokia egokiro kokatzeko behar den informazio guztia eman behar da. Izenak osorik idatziko dira, laburdurarik gabe, eta erdaren kasuan, adierazgarriak ez diren artikulua eta preposizioak kenduko dira.

Telefonoa, mugikorra, faxa eta helbide elektronikoa.- Datuak osorik adierazi behar dira. Gizarte Segurantzak enpresaburuari informazio-jakinarazpenak bidaltzeko erabiliko ditu datu horiek.

5. JARDUERA EKONOMIKOARI BURUZKO DATUAK

- 5.1 Jarduera ekonomikoa.-** Egiten den jarduera ekonomikoa adierazi behar da; horretarako, egoki bada, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan azaltzen den adierazpide bera erabiliko da.
- 5.2 J.E.Z. (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga).-** Zerga horren gakoa jarri behar da. Etxeko enplegatuen sistema berezian ez da eremu hau bete behar.
- 5.4 Hitzarmen kolektiboa.-** Enpresari aplikatu dakioken hitzarmen kolektiboaren kodea eta deskribapena adierazi behar dira. Etxeko enplegatuen sistema berezian ez da eremu hau bete behar.
- 5.5 eta 5.7 Arestion aipatu ezaugarrietako bat duen enpresa denean baino ez dira bete behar puntu hauek.**
- 5.6 Kotizazio-esklusioak dituzten besteren konturako langileak edo langile berdinetiak.-** Inskripzioa egiteko eskabidea aplikatu beharreko arautegiak kotizazio-esklusioaren bat aurreikusten dien langileei alta emateko xedez egiten denean baino ez dira eremu honetan datuak jarriko, adibidez, ikaskuntza-kontratua duten langileak direnean, atzerrira lekualdatutako langileak, kooperatibetako langileen bazkideak, erlijio guztietako ministro eta erlijiosoak, merkataritzako sozietateen kontseilari eta administratzaileak, Itsasoko Langileen Araubidean besteren konturako langileei berdinetitako armadoreak direnean eta arautegiak eskusio motaren bat aurreikusten dien beste edozein taldeko langileak direnean.
- 5.8 Egoitza.-** Jarduera egiten den egoitza eta telefonoa adierazi behar dira, 4. atalean emandako argibideen arabera. Baldin eta jardueraren ezaugarriak direla eta egoitzarik ez badago, atal hau bete barik utzi beharko da.

6. JAKINARAZPENAK JASOTZEKO EGOITZA

7. DATOS DE SEGURIDAD SOCIAL DE LA EMPRESA

- 7.1 Entidad de Accidentes de Trabajo.-** Se indicará la denominación de la Entidad con la que se ha concertado la cobertura de las contingencias de accidentes de trabajo y enfermedades profesionales.
- 7.2 Gertakizun arruntek ondorioztatutako aldi baterako ezgaitasuna estaltzen duen erakundea.-** "X" batekin markatuz zehaztuko da gertakizun arruntetatik ondorioztatutako aldi baterako ezgaitasuna Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzailearen edo Gizarte Segurantzarekin lan egiten duen mutua bidez estali nahi den. mutua aukeratzen bada, arrisku profesionalak estaltzen dituen mutua bera izan beharko da.

8. ORDEZKARIARI BURUZKO DATUAK

- 8.1 Izen-deiturak.-** Ordezkariaren izena eta deiturak osorik adierazi behar dira.
- 8.2 Identifikazio-agiriaren mota.-** Jar ezazu "X" behar den tokian: Nortasun Agiri Nazionala (NAN), Atzerritar Txartela, Pasaporte edo beste agiriren bat...
- 8.3 Identifikazio-agiriaren zenbakia.-** Identifikazio-agiriaren zenbakia jarri beharko da; Atzerritar Txartela denean, Atzerritarren Identifikazio-Zenbakia (A.I.Z.) jarriko da.
- 8.4 Gizarte Segurantzako zenbakia.-** Ordezkariaren Gizarte Segurantzako zenbakia edo afiliazio-zenbakia jarri behar da.

9. KUOTEN ORDAINKETA HELBIDERATZEA

Etxeko langileen sistema bereziko eskaeretan bakarrik bete behar da eremu hau. Nahitaez bete behar da.

Kuoten ordainketa helbideratuz gero, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek zorduntzeko agindua bidaliko du zure bankura edo kuxara kotizazioak borondatezko epealdian ordain ditzan.

Helbideratze honek kotizazioak borondatezko epealdian ordaintzeko eta arauzko tasen edo oinarrien aldaketen ondoriozko erregularizazioak ordaintzeko bakarrik balio du, inolaz ere ez atzerakinak ordaintzeko.

Zure bankuak edo kuxak zeuk adierazitako kontuan zordunduko dizu zenbatekoa; hilaren azken egunean nahikoa diru eduki behar duzu kontu horretan.

Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek esango dizu zein hiletan zordunduko zaizun kontuan lehenengoz eta zuk aurreko hileko kuotak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek emango dizun kotizazio-buletinaren bidez ordaindu beharko dituzu.

AURKEZTU BEHAR DUZUN AGIRI-SORTA

- ▶ **Enpresaren titularraren, norbanako enpresaburuaren edo familiaren etxeko titularraren identifikazio-agiriaren jatorrizkoa edo kopia.**
- ▶ **Enpresaburu kolektiboaren eraketa-agiria,** kasuan kasuko erregistroan behar den moduan inskribatua. Ondasun-erkidegoa edo sozietate zibil irregularra denean, erkide edo bazkideek sinatutako kontratua, zeinetan horien guztien izen-deiturak, egoitza eta identifikazio-agiria erasoko diren.
- ▶ **Ekonomia eta Ogasun Ministerioak emandako agiria,** Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren esleipena agertzen dena; agiri horretan enpresaren jarduera ekonomikoa ere eraso behar da (Etxeko Langileen Araubide Berezirako ez da agiri hau aurkeztu behar).
- ▶ **Inskripzio-eskabidea egiten duen pertsonaren identifikazio-agiria.**
- ▶ **Inskripzio-eskabidea egiten duen pertsonari ordezkartza edo baimena ematen dion agiria.**
- ▶ **Elkarteak edo erkidegoak edota beste edozein eraketa-formula duten erakundeak direnean, eraketa egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar da.**
- ▶ **Itsasoko Araubide Berezian inskribatzeko eskabidea egiten denean, jarduera burutzen dela bidezkotzen duen agiri-sorta aurkeztu behar da.**

OHAR GARRANTZITSUA

Martxoaren 26ko ESS/485/2013 Aginduan xedaturik dagoenarekin bat etorritik, enpresa sortu berriek bide telematikoa erabiliz egin beharko dituzte euren jakinarazpenak, nahitaez, Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa honen bidez: <https://sede.seg-social.gob.es>.

Internet

www.seg-social.es



MINISTERIO
DE TRABAJO, MIGRACIONES
Y SEGURIDAD SOCIAL



GIZARTE SEGURANTZAREN
DIRUZAINZA OROKORRA



TA.6-E

Aurkezpen-erregistroa

Sarrera-erregistroa

ESKABIDEA: GIZARTE SEGURANTZAREN SISTEMAN INSKRIBATZEA

1. GIZARTE SEGURANTZAREN SISTEMAREN BARRUAN SARTZEKO DATUAK

1.1 ARAUBIDEA (Ikus jarraibideen 1. puntua)	1.2 SISTEMA BEREZIA	INSKRIPZIO-DATA	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	Eguna: <input type="text"/>	Hila: <input type="text"/> Urtea: <input type="text"/>

2. ENPRESABURU ESKATZAILEAREN DATUAK

2.1 ESKATZAILEAREN IZEN-DEITURAK EDO SOZIJATEAREN IZENA			
<input type="text"/>			
2.2 MERKATARITZAKO IZENA EDO ANAGRAMA			
<input type="text"/>			
2.3 IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN MOTA (Jar ezazu "X")		2.4 IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZK.	2.5 GIZARTE SEGURANTZAKO ZK.
NAN: <input type="checkbox"/>	I.F.K.: <input type="checkbox"/> ATZERRITAR TXARTELA: <input type="checkbox"/>	BESTE AGIRIREN BAT: <input type="checkbox"/>	<input type="text"/>

3. ENPRESAREN ERAKETARI BURUZKO DATUAK

3.1 DATA	3.2 ERREGISTRO MOTA	3.3 ZENBAKIA	3.4 PROBINTZIA	3.5 LIBURUKIA
Eguna: <input type="text"/> Hila: <input type="text"/> Urtea: <input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
	3.6 LIBURUA	3.7 FOLIOA	3.8 ATALA	3.9 ORRIALDEA
	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
			3.10 I/O	<input type="text"/>

4. EGOITZA PRIBATUA EDO SOZIJATEARENA

BIDE MOTA	HERRI-BIDEAREN IZENA	BLOKEA	ZK.	BIS ESKAIL.	SOL.	ATEA	POSTA KODEA
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
4.1 EGOITZA UDALERRIA / UDALERRIAZ BEHEKO LURRALDE-EREMUKO ERAKUNDEA		PROBINTZIA					
<input type="text"/>		<input type="text"/>					
4.1 TELEFONO FINKOA	TELEFONO MUGIKORRA	HELBIDE ELEKTRONIKOA					
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>					

5. JARDUERA EKONOMIKOARI BURUZKO DATUAK

5.1 JARDUERA EKONOMIKOA	5.2 J.E.Z.	5.3 EJSN 2009 KODEA					
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>					
5.4 HITZARMEN KOLEKTIBOA (KODEA ETA DESKRIBAPENA)							
<input type="text"/>							
5.5 JAR EZAZU "X" LAUKITXO EGOKIAN:							
A.B.L.E. <input type="checkbox"/>	EGITURAKO LANGILEAK <input type="checkbox"/>	IKASTETXEA <input type="checkbox"/>					
<input type="checkbox"/>	LAGATUTAKO LANGILEAK <input type="checkbox"/>	DIRU-LAGUNTZAK JASOTZEN DITU <input type="checkbox"/>					
		EZ DU DIRU-LAGUNTZARIK JASOTZEN <input type="checkbox"/>					
5.6 KOTIZAZIO-ESKLSUSIOAK DITUZTEN BESTEREN KONTURAKO LANGILEAK EDO LANGILE BERDINETSIAK							
<input type="text"/>							
5.7 ARAUBIDE OROKORREKO LANGILEAK, ERRETIRATZEKO ADINA MURRITZEKO KOEFIZIENTEA DUTENAK							
TRENBIDE-LANGILEAK <input type="checkbox"/>	HEGALDI-LANGILERIA <input type="checkbox"/>	MEATZARIAREN ESTATUTUA <input type="checkbox"/>					
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>					
BIDE MOTA	HERRI-BIDEAREN IZENA	BLOKEA	ZK.	BIS ESKAIL.	SOL.	ATEA	POSTA KODEA
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
5.8 EGOITZA UDALERRIA / UDALERRIAZ BEHEKO LURRALDE-EREMUKO ERAKUNDEA		PROBINTZIA					
<input type="text"/>		<input type="text"/>					

6. JAKINARAZPENAK JASOTZEKO, INTERESATUAK ONDOKO EGOITZA LEHENETSI DU (Jar "X" behar den tokian)

ENPRESABURUAREN EGOITZA PRIBATUA EDO SOZIJATEARENA (4. PUNTUA) <input type="checkbox"/>	JARDUERA EKONOMIKOAREN EGOITZA (5.8 PUNTUA) <input type="checkbox"/>
---	--

7. ENPRESAREN GIZARTE SEGURANTZAKO DATUAK

7.1 LAN-STRIPUEN ETA LANBIDE GAIXOTASUNEN ERAKUNDEA (ZK. ETA IZENA)	7.2 ALDI BATERAKO EZINTASUNA ESTALTZEKO KONTRATUA SINATU DEN ERAKUNDEA
<input type="text"/>	JAR EZAZU "X": ERAKUNDE KUDEATZAILEA <input type="checkbox"/> MUTUALITATEA <input type="checkbox"/>

8. ORDEZKARIARI BURUZKO DATUAK

8.1 IZEN-DEITURAK			
<input type="text"/>			
8.2 IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN MOTA (Jar ezazu "X")		8.3 IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZK.	8.4 GIZARTE SEGURANTZAKO ZENBAKIA
NAN: <input type="checkbox"/>	ATZERRITAR TXARTELA: <input type="checkbox"/>	BESTE AGIRIREN BAT: <input type="checkbox"/>	<input type="text"/>

9. KUOTEN ORDAINKETA HELBIDERATZEKO DATUAK (Etxeko Langileen Sistema Berezian)

BANKU-KONTUAREN NAZIOARTEKO KODEA (IBAN)	<input type="text"/>			
ZORDUNKETA DAGOKION KONTUAREN TITULARRAREN IDENTIFIKAZIO-AGIRIA	IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN MOTA		IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZK.	
<input type="text"/>	NAN: <input type="checkbox"/>	I.F.K.: <input type="checkbox"/>	ATZERRITAR TXARTELA: <input type="checkbox"/>	PASPRT.: <input type="checkbox"/>

ESKATZAILEAREN DATA ETA SINADURA
Data: <input type="text"/>
Sinadura: <input type="text"/>

ORDEZKARIA (DATA, SINADURA ETA ZIGILUA)
Data: <input type="text"/>
Sinadura: <input type="text"/>

EGIN BEHAR DEN ONGITZEA EDO/ETA HOBEKUNTZA

ESKABIDEA EGIN ZAION ORGANOA: G.S.D.O.ren PROBINTZI ZUZENDARITZA EDO ADMINISTRAZIOA:

OHARRA: Hizkuntza ofizialakidea duten Autonomia-Erkidegoetan, inprimaki hau bi hizkuntzetan dago eskuragarri.

TA.6-E
(26-06-2018)



GORDEKINA: GIZARTE SEGURANTZAREN SISTEMAN INSKRIBATZEKO ESKABIDEARENA- (TA.6-E)

Agiri honetan adierazten den datan, ondoan azaltzen diren datu hauek sartu dira Gizarte Segurantzaren Probintzi Zuzendaritza edo Administrazio honen erregistroan:

ENPRESABURU ESKATZAILEAREN DATUAK

ESKATZAILEAREN IZEN-DEITURAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA			
<input type="text"/>			
IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN MOTA (Jar ezazu "X")		ENPRESAREN IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZK.	
NAN:	I.F.K.:	ATZERRITAR TXARTELA:	BESTE AGIRIREN BAT:
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="text"/>			
INSKRIPZIO-DATA			
Eguna	Hila	Urtea	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

Sarrera-erregistroa

EBAZPEN-EPEA: Eskabide honi buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea berrogeita bost egunekoa izango da, eskabide hori Gizarte Segurantzaren Probintzi Zuzendaritzaren edo Gizarte Segurantzaren Administrazioaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori eten egin ahal izango da, baldin eta okerrak ongitzeko eta agiriak eta ebazpiderako beste elementu batzuk aurkezteko eskatu behar bada, eta bai Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Komunari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1. artikuluan eta azaltzen diren gainerako kasuetan ere. Epe hori iraungitzen denean berriazko ebazpena zehaztu gabe, eskaera estimatuzat hartuko da eta 39/2015 Legeko 21.4 artikuluan zehazten denaren arabera jakinaraziko da.

TA.6-E (Gordekina)
(26-06-2018)



ONGITZEA EDO/ETA HOBEKUNTZA: GIZARTE SEGURANTZAREN SISTEMAN INSKRIBATZEKO ESKABIDEARENA- (TA.6-E)

Norbanako enpresaburuaren, jarraian datuak agertzen direnaren, inskripzio-eskabideak, ez ditu Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Komunari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 66. artikuluan edo/eta urtarrilaren 26ko 84/1996 Errege Dekretuak onartutako Erregelamendu Orokorrean ezartzen diren eskakizunak betetzen, beraz ezin da berriazko ebazpena eman eskaera aurkezten den une berean.

EBAZPEN-EPEA: Eskabide honi buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea berrogeita bost egunekoa izango da, eskabide hori Gizarte Segurantzaren Probintzi Zuzendaritzaren edo Gizarte Segurantzaren Administrazioaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori eten egin ahal izango da, baldin eta okerrak ongitzeko eta agiriak eta ebazpiderako beste elementu batzuk aurkezteko eskatu behar bada, eta bai Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Komunari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1. artikuluan eta azaltzen diren gainerako kasuetan ere. Epe hori iraungitzen denean berriazko ebazpena zehaztu gabe, eskaera estimatuzat hartuko da eta 39/2015 Legeko 21.4 artikuluan zehazten denaren arabera jakinaraziko da.

ENPRESABURU ESKATZAILEAREN DATUAK

ESKATZAILEAREN IZEN-DEITURAK EDO SOZIJETATEAREN IZENA			
<input type="text"/>			
IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN MOTA (Jar ezazu "X")		ENPRESAREN IDENTIFIKAZIO-AGIRIAREN ZK.	
NAN:	I.F.K.:	ATZERRITAR TXARTELA:	BESTE AGIRIREN BAT:
<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
<input type="text"/>			
INSKRIPZIO-DATA			
Eguna	Hila	Urtea	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>

39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarririk dagoenarekin bat etorritik, enpresa eskatzaileak **HAMAR EGUNEKO** epean ongitu beharko du adierazi den okerra, edo/eta aipatu diren agiriak aurkeztu.

Baldin okerra ongitzen ez badu edo eskatu zaizkion agiriak aurkezten ez baditu, bere eskaera bertan behera utzi duela ulertuko dugu, eta horren ondorioz, ebazpen egokia emango dugu; ondoren, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikusatzaitzari jakinaraziko diogu, ondore egokiak izan ditzan.

Irteera-erregistroa

TA.6-E (Ongitzea)
(26-06-2018)